

Bidaia behar ez bezala antolatzeagatik erreklamatzeari

ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Anixe Freire Castro

Helbidea: Kale Barria, 2-7. eskuma **Herria:** Oñati **PK:** 20560

Nortasun agiria: 56.887.673Ñ **Telefonoa:** 943783262

Noren ordezkari:

ERREKLAMAZIOA JASO DUENAREN DATUAK

Enpresaren izena: Ibili Bidaiak

Helbidea: Kale Zaharra, 2-7. eskuma **Herria:** Oñati **PK:** 20560

IFZ/NA zk.: 12.867.644 **Telefonoa:** 943 76 32 62

Jarduera: Bidaia agentzia

ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUA

Ezkon bidaia dela eta, bidaia bat kontratatu genuen: Mexikon zehar zirkuitua eta Cancun-en egonaldia. Zirkuiturako 5 izarreko hotelak aukeratu genituen eta hala jasotzen zuen kontratuak. Hirugarren egunean gauean berandu iritsi ginen hotelera eta sartuaz bat konturatu ginen ez zela 5 izarrekoa. Berandu zen eta ez zegoen aldaketa haren berri emango zigun inor. Lo egitea erabaki genuen, ezin genuen ordu haietan ezer egin. Ez zen hemen bukatu guztia, hurrengo egunean zirkuituak jarraitzen zuen eta ez ziren bila etorri, antza denez, ez zekiten gu beste hotel horretan geundenik. Egun osoa galdu genuen eta guk ordainduta geneukan egun horretako irteera. Gure kexa adierazi genion hango gidari, baina hona etorritakoan egiteko adierazi zigun hark. Bidaia kontratatu genuen agentziara jo eta haien ardua ez dela esan digute. Han egin behar omen genuen kexa. Orain ez omen dago irtenbiderik. Guk, ordaindutako 5 izarreko hotelaren eta egin ez genuen irteeraren kostua errekuperatu nahi dugu, eta horretarako jo-tzen dut zuengana.

ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko irailaren 10ean

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK

Kontratua. Ordainagiria. Guk aukeratutakoa ez zen hotelaren foiletoa.

Izp.

Anixe